

ALKATETZAREN BANDOA KALE-MUSIKA ETA IKUSKIZUNEI BURUZ

Bando honen xedea Zarautzen kale-musika jotzeko eta ikuskizunak egiteko arauak ezartzea da.

ZARAUTZEN KALE-MUSIKA JOTZEKO ETA IKUSKIZUNAK EGITEKO ARAUAK

- 1.- Bide publikoan musika jotzeko edota ikuskizunak egiteko udal baimena beharrezkoa izango da. Hau prekarioan emango da eta herrian dauden musikagile eta artista kopuruaren, erabiltzen dituzten musika tresnen eta urtaroaren arabera aukeran eman ahal izango da. Baimenaren onuradunak berarekin eraman beharko du hau eta udaltzainen eskura egongo da.
- 2.- Jarduera baimenaren eskaera egin gabe burutzen ari bada, udaltzainek dagokien inprimakia emango diete interesdunei, eta hauek bete eta udaltzainei itzuli beharko diete berau. Eskaera tramitatzen den bitartean jarduera egiten jarraitu ahal izango dute, baldin eta horrek araudi honetan xedatutakoa hausten ez badu. Araudiaren kopia eskuratuko zaie, ezagun dezaten.
- 3.- Jarduera hau auzokoei, merkataritza-jarduerei eta trafikoari eragozpenik sortzen ez dieten lekuetan egin ahal izango da nagusiki. Aurrekoa kontuan hartuta lekurik egokienak pasealekuak eta plazak dira. Edozein modutan ere, jarduerak ezin izango dira egin etxebizitzien edota merkataritza-jardueren sarreretan eta, halaber, ezin izango dute zati batean edo osorik erakusleihorik ezkutatu.
- 4.- Musika nagusiki goizean eta arratsaldean jo ahal izango da, eta ezin izango da jarduera luzatu gaueko 22:00etatatik eta udaran 23:00etatik aurrera, herriko jaiak ospatzen diren egunetan izan ezik; hauetan, udal akordio bitartez kasuan kasuko erabakia hartuko da.

- 5.- Inguruko eraikinetara heda dezaketen soinu-maila altuena ez da 40 dB (A)tik pasako logeletan eta 45 dB (A)tik beste geletan gaueko 22:00ak artean; eta 32 dB (A)tik batean eta 35 dB(A) bestean ordu horretatik aurrera.

Horri buruzko neurketak interesdunak hala eskatuta edo ofizioz egingo dira eta Udaltzaingoak ahalmena izango du jarduera eteteko, etxebizitzetara hedatutako soinua aurreko paragrafoan aipatu den soinu-maila baino handiagoa dela egiaztatzen denean.

- 6.- Jardueraren arduradunek audio-materiala (kaseteak, diskoak, konpaktuak, e.a.) soilik saldu ahal izango dute, baldin eta diharduten musikarien edo taldeen grabazioa bada.
- 7.- Era berean, Udaltzaingoak ahalmena izango du jarduerak geldiarazteko ikusten badu arau hauetako bat hautsi dela edo interpretazioak debekatuta dagoen eskaletza bezalako jardueraren bat estaltzen duela.
- 8.- Edozein kasutan, Udaltzaingoak eta Alkatetzak edo Kultura departamentuak emandako jarraibideak bete beharko dira.

Zarautzen, 1996ko apirilaren 15ean

IMANO MURUA
Zarauzko alkatea